araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak Euskararen Egunaren ospakizuna euskarazko sormena sustatzeko hamar bat ekimenekin zabalduko du

«Euskaraz sortu, euskaraz BIZI!» lelopean, urritik abendura bitartean egingo dira jarduerak, adin guztietako herritarrei zuzenduta eta lurraldeko hainbat tokitan

Egitarauak Lazarraga sariak, Marka eta Erronka topaketa, Gure Zirkua eta literaturarekin, unibertsitatearekin eta haur zein familien aisialdiarekin lotutako jarduerak biltzen ditu

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 16a. Arabako Foru Aldundiak, lurraldeko hainbat erakunde eta entitaterekin elkarlanean, jarduera egitarau bat antolatu du abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. «Euskaraz sortu, euskaraz BIZI!» lelopean, ospakizuna egun horretatik harago zabalduko da, euskarari ikusgarritasuna emateko eta Arabako gizarteko hainbat esparrutan haren erabilera sustatzeko hamar bat ekimenen bidez.

Urrian hasi eta abendura arte luzatuko diren jardueren artean, familientzako, hezkuntzarekin lotutako eta aisialdiko proposamenak daude, baita enpresa eta unibertsitate arloekin lotutako topaketak ere. Guztiek helburu bera dute: euskara erabiltzeko aukerak sortzea eta eguneroko harremanetan haren presentzia sustatzea, eskolatik eta kiroletik hasi eta lan mundura edo aisialdira arte.

Egitarauak arreta berezia eskaintzen die haurrei eta gazteei, baina baita lan munduari, elkarte sareari eta familiei ere. Horretarako, jarduerak Vitoria-Gasteizen zein lurraldeko hainbat eskualdetan egingo dira.

Iñaki Gurtubai Berdintasun, Euskara eta Gobernantzako foru diputatuak adierazi duenez, «Euskararen Eguna aukera egokia da gure hizkuntzari balioa emateko eta eguneroko bizitzan erabiltzeak duen garrantzia gogorarazteko. Egitarauak askotariko jarduerak biltzen ditu, adin guztietako herritarrei zuzenduta, eta hainbat esparrutako ekimenen bidez euskarara hurbiltzeko aukera eskaintzen dute».

Euskara gizarteko hainbat esparrutara hurbiltzeko jarduerak

Egitarau honetako lehen ekimenetako bat Kantari Araban izan da. Aurten, jarduera Arabako hainbat eskualdetara zabaldu da. Urte luzez Vitoria-Gasteizen egin den proiektua Arabako Mendialdera, Añanara eta Arabako Errioxara iritsi da, 7 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendutako hiru emanaldiren bidez.

Lehenengoa urriaren 24an egin zen Kanpezun, Arabako Mendialdeko eta Trebiñuko haurren parte-hartzearekin; bigarrena azaroaren 7an egin zen Langraiz Okan, eta hirugarrena azaroaren 14an egingo da Oionen, Arabako Errioxako haurrekin.

Iosu Muro Visa – imuro@araba.eus - 945 18 17 46 – prentsa.araba.eus

Musikaren eta dantzaren bidez, Kantarik euskarazko abestiak interpretatzeko, koreografiak prestatzeko eta familiek ere parte hartzen duten esperientzia kolektibo bat bizitzeko aukera eskaintzen die haurrei. Lehiarik gabeko jarduera da, eta gozamena, kultur transmisioa eta eskola eremutik kanpoko euskararen erabilera uztartzen ditu.

Azaroaren 12an, Vitoria-Gasteizko Artium Museoak Lazarraga sarien banaketa ekitaldia hartuko du. Arabako Foru Aldundiak eta Bai Euskarari Elkarteak antolatutako sari horiek bederatzigarren edizioa beteko dute aurten, eta Araba eta Trebiñuko enpresa, establezimendu eta entitateek euskara eguneroko jardueran txertatzeko egiten duten ahalegina aitortzen dute.

Edizio honetan bost aitortza banatuko dira, Lanabes – Araban Euskara Lanean egitasmoarekin lotutako ekimen baten barruan. Egitasmo horren helburua da arlo sozioekonomikoan euskararen presentzia eta erabilera sustatzea. Sariek aukera ematen dute hainbat sektoretako erakundeek euskara lan, merkataritza eta lanbide harremanetan txertatzeko garatu dituzten esperientziak ezagutarazteko.

Kirolak ere leku nabarmena izango du egitarauan. Azaroaren 19an, Vitoria-Gasteizko Europa Jauregiak Marka eta Erronka Kirolean topaketaren edizio berri bat hartuko du. Aurten, eskola kirolak haur eta gazteen hizkuntza ohiturak eskuratzeko eta sendotzeko duen garrantzia izango da ardatz nagusia.

Jardunaldian kirol arloko profesionalak, klubetako eta federazioetako ordezkariak, teknikariak, entrenatzaileak eta kirol jarduerarekin lotutako beste hainbat eragile bilduko dira. Topaketak esperientziak partekatzeko, arlo horretan euskarak duen egoera aztertzeko eta entrenamenduetan, lehiaketetan zein kirolarien arteko harremanetan euskararen erabilera handitzeko aukerak identifikatzeko balioko du.

Familientzako aisialdi eskaintzan ere izango du lekua Gure Zirkuak, euskarazko lehen zirku ibiltariak. Vitoria-Gasteizera itzuliko da, azaroaren 20tik abenduaren 12ra bitartean 15 emanaldi eskaintzeko, Musikaren Ibilbidean. Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntza duen ekimenak akrobaziak, umorea, musika eta zirkuko beste hainbat diziplina uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko die familiei, euskara protagonista izanik.

Iker Galartza aktoreak 2017an sortutako Gure Zirkua euskarak familien aisialdian ere eskaintzen dituen aukerak erakusten dituen proposamen gisa sendotu da. Sarrerak www.gurezirkua.eus webgunearen bidez eskura daitezke.

Sorkuntza, literatura eta unibertsitatea

Egitarauak euskal literaturari, haren historiari eta herritarrengana hurbiltzeko modu berriei ere eskainiko die tartea.

Azaroaren 24an, Euskaltzaindiarekin lotutako jarduera baten barruan, Gidor Bilbaok «Lazarraga, XVI. mendeko euskal sortzailea, XXI. mendean irakurri eta gozatzeko» izenburuko hitzaldia eskainiko du. Ekimenak Joan Perez Lazarragaren figura ezagutzeko aukera emango du. Lazarraga Arabako euskal literaturaren erreferente historikoetako bat da, eta jarduerak haren ondare kulturala eta linguistikoa hobeto ezagutzeko balioko du.

Egun bat geroago, azaroaren 25ean, Euskal Herriko Unibertsitatearen Vitoria-Gasteizko campusak Etxepare Rap hartuko du, Imanol Epeldek sustatutako proposamena, euskal literatura eta musika garaikidea uztartzen dituena.

Raparen bidez, ekimen honek euskal literaturako hainbat egileren testuak berreskuratu eta publikoari hurbiltzen dizkio, gaur egungo musika hizkuntza erabiliz. Jarduera bereziki gazteei zuzenduta dago, eta euskal literatura adierazpen artistiko berrien bidez ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Unibertsitateak berriz ere protagonismoa izango du azaroaren 30ean, EHUko Letren Fakultateak Euskararen Biziberritzea Araban (EBA) egitasmoaren aurkezpena hartuko baitu. Proiektua Arabako Foru Aldundiaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren bidez garatu da.

Egitasmoak azken sei hamarkadetan Araban euskararen biziberritzeak izan duen bilakaera jaso eta dokumentatzen du, lekukotasunen, material historikoen eta lurraldeko bilakaera soziolinguistikoari buruzko datuen bidez. Unibertsitatean egingo den aurkezpenari esker, lan hori komunitate akademikoarekin eta belaunaldi berriekin partekatu ahal izango da, eta Araban euskararen presentziak eta erabilerak izan duten bilakaera ezagutzeko aukera eskainiko da.

Abenduaren 3a, ospakizunaren egun nagusia
Egitarauaren egun nagusia abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna, izango da. Arabako Foru Aldundiak Vitoria-Gasteizen eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako ekitaldi instituzionaletan parte hartuko du.

Foru erakundeak komunikazio ekimen batekin osatuko ditu ospakizun horiek, aurtengo «Euskaraz sortu, euskaraz BIZI!» leloaren mezua herritarrei helarazteko eta euskarak komunikaziorako, sorkuntzarako eta elkarbizitzarako hizkuntza gisa duen garrantzia gogorarazteko.

Horrela, egitarauak askotariko jarduerak eta publiko desberdinentzako proposamenak bilduko ditu, helburu komun batekin: eguneroko bizitzako hainbat esparrutan euskara ezagutzea, erabiltzea eta gozatzea sustatzea.

Iosu Muro Visa – imuro@araba.eus - 945 18 17 46 – prentsa.araba.eus